



Ahate aita eta ama, goizean goiz
jaiki ziran egun haretan,
zereginak egin eta gozaria gertatu
ondorean herri aldera abiatu ziranusterik
eguzkia zeru goian jarri baino
lehen itzuliko ziralá.

Irten baino lehen beren bihotzeko
Piru-ren gelan sartu ziran,
ahatetxoa iratzartu ez zedin balakurik
ere ez zioten egin.

—Goazen! —esan zion amak
aitari— itzultzen geranean,
oraindik, uste dut, lo egongo dala...
Eta biak irten ziran isil-ìsilik.
Etxeko atea jiratu zuten
eta kalean une batean zalantzan
gelditu ziren...



Azkenean erabakia hartu zuten
eta bizkortuaz hartu zuten herrirako bidea egin
behar zituzten erosketaz pentsatuaz.
Biharamunean Piru-ren eguna zan
eta jai polit bat antolatzeko behar zan
guztiaz hornitzeko asmoa zuten. Piru-ren



adiskide guztiei deia egingo diote eta ez
dute nahi ezer falta izaterik, dana ahal bezin
onduen izatearren. Piru-ri jostailu asko erosi
zizkioten, soinekutxo bat eta azken modako
txapeltxo bat... Ama eta aita Ahate mila
ames eginaz zijoazten bidean eta
beren bihotzak alai daude.



Baina Piru bihurriak, lo egoan itxurak eginarren, esna egoan, bere leihotik sartzen zan eguzki printzetara begiak ez irikitzeko nahikoa indar egin bazuan ere. Bere gurasoak kalerako atea igaro orduko jaiki zan eta kantuz ari zan:

—Soil soilik!, bakar!, azkenean bakar bakarrik nago! Begiak urez ikutuaz erdi-



bustirik zan eskuoihalez igurtzi eta bururatu zaizkion asmoak egiten ari

zan. Aurreko egunean entzun
zien gurasoei, beren artekoetan esan
zutela asteko erosketak egiteko herrira
zijoaztela eta Piru-k une hura
aprobetxatu nahi inork zaindu gabe
oihanean zehar ibilaldi bat egiteko. Leihoratu
zan eta kuitxo bat ikusi zuan
mitxeleta baten ondorean jolaskor,
eta egonezinez irten zan etxetik.



A! Zer eguzkia!
Zer belar hezea
zelaietan! Zen-
bat lora bazte-
rretan! Eta ze
kolore politak!
Ze usai ona!
Piru ezin zan
begira asetu,
batetik bestera,
konturatu gabe poliki
poliki etxetik hurrunduaz eta bidetik aldenduaz
oihanean galtzeko arrisguz.





Kuiarekin berriz arkitu zanean, ardurarik gabe beti ibildari zanez, Piruk hain koipatsu hartu zuan, azkenerako kuiak oihanean zehar laguntzea eskeini zion eta berak bakarrik ezagutzen zituan toki ikusgarriak erakutsiko zizkiola agindu zion. Une aretan Piru munduko umerik zoriontsuena sentitzen zan. Ongi zekian, kuitxoak harzulo guztiak ezagutzen zituala, zomorro guztiak eta oihaneko izkutu guztiak; bere laguntzan ba,



ezagutuko zitu-
tuan berak ere
oihanean ziran
leku eder eta
arrigarrienak.
Urretxindorra-
ren kanta ent-
zun, era berean
txitxarrena eta
kirkerrena ere...,
igelen karrazta-
dak eta zozoen
txistuak ere
entzungo zitu-
tuan. Katago-
rriak adarretik
adarrera jauzi-

ka, ontzak beren kabietan lo eta txinurriak
nola lana egiten duten beren janariak negurako
bilduaz. Ikusi zezazkean sagutxoak lurpera zitu-
tuzten zulo-ahoetatik zelatari eta hurbiltzen
diran guztiei adi eta okila zuhaitz enborrari
mokoka eta gauza liluragarri asko, berak ent-
zundakoak baino gehiago noski.

Kuitxoari hizketan entzunaz oihaneko hainbeste eta hainbeste gauza liluragarri buruz, Piru txikia



pozak zoratzen egoan, zeren kuitxoak esan eta eskeintzen zion guztia oso-osorik sinistuez. Baina kuitxoa ez zan mugitzen eta eguzkitan etzanda lasai egoan Piru bere senetik atereaz: —Goazen, zeren kontatzen duzun guztia ikusi nahi dut eta!



Piru-ren erreguetara kuitxoa jaiki zan, lau salto egin, belarra usmatu eta Piru eramaten zuan jira bat egitera berean nora-ezean nahastu arte



eta horrela inoiz ez zituan betetzen bere eskeintzak. Piru nekatu eta gosetu zan, baina batez ere gohaiturik egoan. Oihan guztia ikertzea zan bere ametsa eta kuitxo berritxu harek ondatu zituan bere

asmoak. Izan ere, ez zuan ezer ikusi, ganora gabe jira eta bira ibili besterik ez zuan egin. Bere etxera itzuli beharko zan bere laguntxoei ikerketa jakingarririk ezer kontatzeko ez zuela.

Azkenerako, nolabait esan behar eta edukazioz baina kementsu adierazion kuitxoari bere





protesta, baina honek, erantzun gabe, buztana altxatu eta ihesari emanaz hurrundu zan.

Ahatetxoa bakarrik gelditzean konturatu zan etxera itzultzen ezekiala bidea galdu zuelako.

Eskerrak borondate oneko tortuga bati, handik igarotzean bere negarra entzun zuan eta bide luzeari ekitzeko egoan sagutxo bati deitu zion eta hau prest egoan ahatetxo dohakabeari bere etxeraino laguntzeko.

Joan eta joan, noizbait heldu zan Piru bere etxeko leihoko argia ikustera. Sartzeko ausartasunik gabe egoan, baina alako batean dei egitea erabaki zuan. Laster entzun zan aitaren abots zorrotza, sartzeko aginduaz. Atea txingetean egoanez, irikiaz sartu zan Piru.

Sagutxoa laguntzailea ere sartu zan bere mantelin-zorroa makilatik zintzilik zeramala eta izkutatu zan Piru-ri emango zioten zigorra



ikusiz gozatzeko asmoan, ahartetxo ausartak ondo merezia izango zuala ta. Baina Piru-ren gurasoak ez zeuden hortarako, ez horixe. Ez zan egon zigorrik ez hasarrerik. Ama eta aita Ahate-k bildur handia igaro zuten erosketetatik etxeratzean Piru arkitu ez zutelako. Bere zain egon ziran estu eta larri, tristuraz beterik. Eta



Piru hain zikin, nekaturik, gosez eta gainera ikaraz eta lotsaz beterik, ez zuten izanez hasarre egiteko gogorik. Euren begirakunean arpegi alaia nabari zan Piru itzuli zala ikustean.

Piru-k ulertu zuan hura eta negarrari eman zion. Gurasoak eztiki besarkatu zuten eta baita esan ere zenbat sufritu zuten pentsatzeaz oihanean

zegar hain bakarti arkitzean igaroko zituen arriskuez. Piru-k parka eskatu zien eta baita agindu ere aurrerakoan ez zuala holakorik egingo. Orduan gurasoak laztanka eta musuka hasi ziran, eta bere egunerako erosi zituzten jostailuak eman ziozkatzen.

